

"Oroimena astintzeko filmak" dokumental zikloa Areatzan

12. orrialdea

Egunon printzesa!ren estreinaldia

Indarkeria matxista ikastetxeetan prebeniduteko euskerazko materiala izateko, *Egunon printzesa!* laburmetrajea egin dabe Urtxintxa eskolakoak. Filmaren zuzendaria Ibai Pujana zeberioztarra da, protagonistak Arratia Institutuko ikasleak eta lokalizazioen artean Arratia Institutua agertzen da.

Filmaren estreinaldia Igorreko Kultur Etxean izan zan zemendiaren 22an. 13. orrialdea



Hirugarren auto klasikoaren batzarra hilaren 3an

11. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

153

2011ko abenduaren 1a
hamabostekaria
www.begitu.org

Ziklo-kroseko Munduko Kopa Igorren

Abenduaren 4an, Ziklo-kros Munduko Kopa eta XXXV. Euskadi Sari Nagusia izango da Igorren Olabarriko zirkuituan eta urtero lez munduko onenak izango dira gurean.

Baina AZEK eta Igorreko Udalak antolatutako nazioarteko proiektuak daukan proba honek erakundeen diru laguntzen murrizketa izan dau. Hori dala eta, lasterketa bat gitxiago izango da aurten Igorren.

Hauxe da lasterketen ordutegia:
09:30ean, Kadeteak.
10:15ean, Masterrak.
11:00etan, Elite mailako entrenamenduak.
12:00etan, Gazteak eta andrak.
13:30ean, Munduko Kopa gizonak, elite maila.

Zirkuituak aldaketa txiki bat izan dau eta aurten ez da eskailerarik egongo. Proba zuzenean ikusi ahal izango da Europako hainbat herrialdetako telebistetan sateliteren bidez. Seinalea "mundu guztirako" emongo dau ETBk eta hemen be ETB-Sat-eko kirol-tako kanalean ikusi ahal izango dogu Igorreko ziklo-krosa.

Kevin Pauwles, Zdenek Stybar eta Sven Nys lehiatuko dira Munduko Kopa eskuratzeko, eta Egoitz Murgoitio euskalduna lehenengo hamarren artean sartzean saiatuko da. 11. orrialdea



Munduko ziklo-kros laririk onenak zitea daukie Igorren abenduaren 4an.

ARRATIA

Abenduak 3, Euskerearen Nazioarteko Eguna

Hainbat ekitaldi antolatu ditue gurean hizkuntza gitxituen egunerako. Areatzan barbarako 2an eta 3an egongo dira ekintzak. Diman abenduaren 2an eskolan egingo dabe jaia eta 3rako hainbat ekintza programatu dabez. Igorren euskerearen erabilera bultzatzeko hitzarmen sinaketea egingo da Igorreko kirol eta kultur alkarte eta Udalaren artean. Lemoan antzerkia, eta eskolatan konpromiso ekitaldia egingo da. Zeanurin talo tailerra eskolan, eta herriko artistak herriko plaza girotuko dabe. Gero talo jana eukiko dabe eskolan. Zeberion barriz herri kirolaren zeberioztarren arteko lehia eta bertso-bazkaria Arkaitz Estiballes eta Angel Mari Peñagarikanogaz. 5. orrialdea

ARRATIA

Fracking-a egiteko baimenak gurean

Hidrocarburos de Euskadik (Energiaren Euskal Erakundea) Arratian erregairik dagoan ikertzeko baimena dauka. 49.752 ha.ko ikerketa eremu honen barruan dagoz Arratia eta Zeberio eta "Saia" izena dauka baimen horrek. Ubide, beste emakida baten eremuan geratzen da "Mirua" izeneko emakida eremuaren barruan, hain zuzen be. 8. eta 9. orrialdeak

ARRATIA

Indarkeria sexistaren kontra

Ehun lagun inguru batu ziran Igorreko Kultur Etxe aurrean zemendiaren 25ean andrakanako indarkeria matxistaren kontra agertzeko. "Ez bakarrik herritarrek, udaletatik be inoz baino ordezkari gehiago etorri dira" inoen bertaratutakoak. 2011ko lehenengo sei hilabetekoan, Erkidegoan, andra 2 hil ditue eta 1.952 andrak erasoak sufridu dabez, Genero-Indarkeriaren Biktimen Arretarako Zuzendaritzak emondako datuen arabera.

KIX MI DA
KODI DEN DA

INSTITUTOKO ZUBIA
PASATUA, OLABARRI,
BESTE
ALDEAN GOLOSKI
PIDOKERI DENDA
ALBOAN.

LEHENDAKARI AGIRRE, 5
48140, IGORRE
BIZKAIA
Tlf: 94 612 02 41
Fax: 94 612 02 46
kixmikopi@gmail.com

- FOTOKOPIAK
- Zuri Beltzean
- Kolorean
- Paper berezian
- ENKUADERNAZIOA
- Apurteak/espinateak
- PLASTIFIKAZIOA
- A3 Tamara (zabizteko haur)
- TEXTU MOLDAKETAK
- INPRENTA
- ZERBITZUAK
- Kartak, txartelak, menuak...
- KARTELAK
- PAPELERIA
- Koadernak/arkatzak...
- MATERIAL TEKNIKOA
- LIBURUAK ENKARGUZ
- KAMISETAK
- Trasterak
- TANPOIAK
- Sigilak
- DISEINUA
- Berlan egina



KANTU HERRIKOIAK

BOTUA BILA

Botua bila jauntxoak datoz sakela diruz beterik, txarri bat legez geutaiko batek saltzen dauen[!]ez gogorik. Baina erosle hoi en etxean ez dago zidar urrerik, geure arimak ez daukelako asto baten preziorik.

Esku batian bolsa betia eta bestian zigorra, botuagaitik eskeintzen daude agoan daukan txokorra. Arda gorria[k] izango dira atrapau arte mozkorra, eta zuontzat andratxuentzat seda hutsezko atorra.

Urdai goxoa katilupean ipinte jake saguai, gero ur berroz narru osoa kentzen dautsie gaixoai. Baina oingoan baserrietan bada urdaia zeinbat nahi, kontra egite[n] dautsazuleko gure kortako txarriai.

Kapela asko ikusten dira etxe ondoko landetan, esku garbiak daukazan eran eingo ei dabe laietan. Baina holako gizon koipeak hasten badira lanetan, erregaluak utzikoituz soloko arto artetan.

"... Patxi honek (Patxi Bilbao) bertso hauei buruz dio hauteskunde batzutan Markinako Jose Luis Lekanda Ayala diputautzara aurkeztu zela, karlisten aldetik edo, eta galtzea gertatu, oso aberatsa izan arren. Eurei jazotako deskalabrua ezin irentsirik, amari negarrez joan omen zitzaion, eta amak, semearen desesperazioa ikusirik, esan omen zion:

- Jose Luistxu, ez negarrik egin. Neuk ekarriko dizut zuri bizikletea. Eta pozik geratu omen zen. Gero bertsoak atera ziren. Bertsio honetan lau ahapaldi besterik ez dira, baina segur dozenaren bat izango zirela, ohitura zenez. Eta lau hauetatik, sorta zorrotza izango zela atera daiteke".

(Xabier Amuriza. *Bizkaiko Bertsogintza I* – 478 orr.).

1978an, Dimako Bargondia auzoan, Ruper Lekuek jaso.

Botua bila

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak**Zemendiaren 28tik abenduaren 4ra**

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54

Abenduaren 5etik 11ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22

Abenduaren 12tik 18ra

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7
Tel.: 94 631 73 11
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro. Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta 20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45. Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15 eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15, 14:15, 17:15 eta 20:15.

Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15 eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriagatik): 10:40, 13:40, 16:40 eta 19:40ean.

La Union* 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandiokoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandiokoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandiokoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.

Babesleak:

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundutakoa

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA SAIA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Visorrenako de Política Lingüística



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



bbk



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

www.begitu.org

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Kudeatzailea: Inigo Iruarrizaga.

Erredakzino taldea: Oihane Barrenetxea, Urtzi Barrenetxea, Ainhoa Duñabeitia eta Irati Urien.

Maketazinoa: Inigo Iruarrizaga.

Publizitatea: Inigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: June Egileor, Maria Rodriguez eta Pablo Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Julen Eskalante eta Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Nerea Romero (Igorre) eta Peio Murgoitio (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.400 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

Euskerazko hedabideak erakundeen konpromisoa behar dabe

Bederatzi hilabete badira euskerazko hedabide ez publikoak agerraldi publikoa eta kanpaina bateratua egin genduala, hiru helburu nagusigaz:

1. Sektorearen estrategikotasuna eta beharra azpimarratzea. Komunikazioaren eta hizkuntza normalizazioaren ikuspegitik ez ezik, ekonomia ikuspegitik be estrategikoa eta garrantzia handikoa dan sektore bateri buruz gabiz berba egiten.

2. Erakunde publikoai sektoreagazko konpromiso handiagoko eskatzen jakie, publikoaren inbersino, bestelako inbersino eta laguntza handiagoko, gaurtik bertatik hasita.

3. Horrezaz gain, sektoreak egoeraren analisia egin eta analisi horretatik abiatuta ildo nagusiak erakundeakaz lantzean hasteko konpromisoa hartu eban.

2012. urtea ate-joka dogu, eta erakundeetatik sektoreari begira jasoten gabizan mezuak kezkarriak dira, ikaratzeko modukoak.

1. 2012rako aurrekontu proposamenean jasota dagozanak betetzen badira, Nafarroako Gobernuak euskerazko hedabideentzako zituan diru laguntzak ezerezean dira, 2012ko aurrekontuetatik guztiz desagertuko da hedabideetan euskera sustatzeko diru partidea. Gainera, 2011ko bigarren epealdiko laguntzak desagertzeko arriskua be handia da.

2. Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako aurrekontuak onartzen badira, erakunde horrek aurten baino 400.000 euro gutxiago bideratuko ditu 2012an hedabideen diru laguntzetara. Urteetan, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu orokorrak goraka joan diranean, euskalgintzara eta euskerazko hedabideetara bideratutako diru sailak ez dira handitu; orain, aurrekontuetan estutasunak sortu diranean, ez dago errukirik: lehendik estu dabilen sektore bateri oindino kalte handiagoko egiteko aukerea zabalduko da.

3. Gipuzkoako Foru Aldundiak 2011ko diru sailari eustea aurreikusitako dau —aurreko urte bietan asko jaitzi da diru sail hori, eta ez dau handituko—. Bizkaiko Foru Aldundia da 2012rako bere aurrekontuetan diru saila han-

ditzea aurreikusitako dauan bakarra —47.500 euro gehiago, % 12ko igoerea—.

4. Eta zer esanik ez Iparraldeari buruz, non euskaldun hiztunen galera bizkorra (hizkuntza politika publiko baztertzalearen ondorioz) anbizino bako hizkuntza politika bategaz paraleloan doan. Enpresa pribatuak euskerazko hedabide barriak sortzen dituen bitartean, laguntza publikoak oindino geldialdi berean mantenduten dira eta, aldi berean, potere publiko gehienak ez ditue kontuan hartzean euskerazko hedabideak beren publikitate kanpaina ordainduetan.

Jakitun gara sektorearen etorkizuna gure lanaren baitan dagozala batez be. Guk geuk be aztertu behar doguzala gure indargune eta ahuldadeak, sektorean alkarregaz jardunda errezagoa izango jakula sasoi zail honeri aurre egitea. Zeregin horretan gabiz hilabete honeetan eta laster baten gure hausnarketea instituzinoetako arduradunakaz alkarbanandu ahal izango dogu. Baina argi daukagu aurrera egiteko ezinbestekoa dogula erakunde publikoen laguntza handiagoko, eta hori gabiz aldarrikatzen momentu honetan.

Gaur egungo erakunde publikoen dinamika ez dau asko lagunduten bide horretan, eta ezin gara isilik gelditu ikusten dogunean euskerazko hedabideen sektoreak ez daukala erakunde publikoen 2012ko aurrekontu proposamenean behar eta merezidu dauan traeterea jasoko, danen begietara sektore ezinbesteko eta estrategikoa izan arren. Horregaitik, erakundeai publikoki eskatzen deutsegu gaiaren garrantzia kontuan hartzeako eta aurrekontuak ahalik eta gehien egokitzeko, partidak handituz.

EUSKERAZKO HEDABIDE EZ PUBLIKOAK

ERETXIA

Abenduaren 3a, Euskerearen Nazinoarteko Eguna

Maila formalean era honetako "Egunak" nazinoarteko erakunde batek izentatzen dabez, gehienetan Nazino Batuai lotutako erakundeak, baina Euskerearen Nazinoarteko Eguna Eusko Ikaskuntzak sortu eta gerora Eusko Jaurlaritzak eta Euskaltzaindiak instituzionalizatu eban. Kontuan izan, orduan, abenduaren 3an nazinoartean minusbalotasuna daben personen nazinoarteko eguna be badala.

Era honetako nazinoarteko egunak ezaugarri edo baldintza oinarriko batzuk daukiez: kausa on bat ospatzea edo oroitzea daukie oinarri, izentautako "gaia"ren inguruko lege eta arauak nazinoarte mailan betetzeko edo gordetzeko helburua daukie eta urtero alderdi edo azpiatal jakin baten ipinten da indarra (urtero aldatzen dan ospakizunaren leloa).

Lehenengo ezaugarri biak ez dira aldatzen urterik urtera, hirugarrena bai baina; horregaitik proposatutako deusuetan aurtengo Euskerearen Egunean argia edo indarra zertan ipini: "alkarteetan euskerea zuzterretik"; euskereak bizirik iraun ahal izateko, berau sustatzeko, sendotzeko, natural erabili ahal izateko, euskereak hur daukagun komunitatean dauka indarra.

Horren harira, hur daukagun komunitate horretako kideakaz herri mailako ekitaldi bat antolatu gura dogu; ahalik eta jente gehien erakarriko dauana, beti be aitatu doguzan hiru osagai nagusien inguruan:

Danan gaintetik, ospatu: Igorren pauso asko eta norabide onean emon dira euskerearen erabile-rea eta presentzia handitzeko:



AMAIA ARAUZO
Igorreko Udaleko Euskera Teknikaria

alkarteak, herritarrak (umeak, gazteak, gurasoak, adinekoak, igorretar barriak) Berbalagunak, merkatariak eta BEINKE, herriko eragileak, AEK, eskolea, institutua, lan mundua, instituzinoak, komunitateak...

Bigarrenik, aldarrikatu: euskereak hizkuntza ofizial gisa arau eta lege bidez aitortuta daukan estatusa betearaztea eskatzen dogu, izan be, arau eta lege jagokonaren azpitik dago gaur egun esparru askotan euskerea. Adibide bat ipintearren, oraintsu Osasun Zentroko keja-kanpaina jaso da hizkuntza eskubideen aldarrikapena, besteak beste.

Hirugarrenik, aurten indarra ipini gura dogun atala: Igorren euskereak bizi behar badau, eguneroko interrelazioak agertzen diran hizkuntza komunitatea sendotu behar da. Aurtengo lelo edo gai honegaz hausnarketea eragin gura dogu igorretar guztien artean.

Bat egizue geure asmoagaz eta erduzie abenduaren 3an Kultur Etxean egingo dan ekitaldira, danon artean Euskerearen Nazinoarteko Egunean harira, hausnartzeko, aldarrikatzeko eta batez be ospatzeko!

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Laprast egin



Oinez joan eta leku labanean oreka galdu eta lurrera jausi edo jausteko arriskuan egon. Labankadea borondatez edo gura barik izan daiteke. Arratian, laban egin edo laprastau aditzak be erabilten dira. Laprast egiteko ekintzeari laprastada edo laprastakadea esaten jaku.

PILATUZ
PILAK BIRZIKLATZEKO ZERBITZU BERRIA ZEBERION

Pilak biltzeko guneak
Zeberiko Udaletxea
Sautuolabari
Eskola Publikoa

Zeberiko Udaletxea
Udaletxea 21
ecopilas

LUMATUTEN



IBON IZA

Iparraldea

Lehengo egunean ume batek Euskal Herria zein bi estaduren artean egoan galdetu eustan.

- Pentsau... -erantzun neuntsan.

- Pentsau...

Handik lasterrera, hegoaldean, Espainia geunkala konturatu zan, Eureka!!

Eta Iparraldean??

Burua gorantza garraiatu eban, Iparraldeko estatu hori ikusi gurean, ni sinistu ezinik, artega, urduri, nerbioso... erantzuna emon gurean.

Mutikoa bitartean han ebilen, "pentsakor", "arduratu", plantak eginaz, "honek umeonek, ez jakik non bizi gozaken be??" galde-tuten neuntsan nire buruari.

Azkenean bota eban erantzuna:

-Britaina Handia!?

-Britaina Handia?? arrazoa daukazu- erantzun neuntsan.

-Euskal Herriaren iparraldean Britaina Handia dago eta Baiona Brighton-etik 80 kilometrora daukagu.

Azkenaldian, umearen antzera, gu geu be iparra galduta gabizela uste dot.

ETAk, borroka armatuaren amaiera iragarri ostean, gure inguruko herritar askok eta askok txanpainagaz afaldu eben.

Albiste pozgarria izan zan arren, nire burua ez egoan ospakizunetarako.

Gurean, orduko gauean be iturriko ura edan genduan.

Ondino estatuak arma piloa daukazalako, ondino torturatzaileak kalean lasai-lasai dabizalako, ondino estaduko indar polizialak gure bide bazterretan sarri baino sarriago daukaguzalako, ondino presoak preso dauzelako, ondino iheslariaren amak, bere alaba non eta zelan dagoan ez dakialako, ondino, ondino, ondino...

Bake sasoian ei gagoz, hori dinoskue, baina bakearen usoak balkoirik balkoi jabilkuz euren ugerra kendu gurean.

Guk, bitartean iturriko ura edaten jarraituko dogu, gure bidea egin gurean, iparralderantza edo hegoalderantza, bakean, baina gure bidea. Eta txanpaina Barriolak eskuz banakako txapela irabazten dauanerako itxiko dot, ia ez jatan alperrik galtzean!!

ZERTZEAN

Atxosterik Atxostera

LINO AKESOLO

Atxostekoa naz eta Atxostera nator.

Arratia aldeti Durango aldera, bitartean diran hatx-tontor lainozaleen ganeti, Izurtzara luzatu nahi dot eskua, hango seme argi batek eskintzen deuskun euskalburu barri hau esker onez hartzeko.

Niretzat txikitarik izan da entzuna Atxoste. Atxostekoa zan nik neure auzoan euki neban lehenengo eskola-maixua, Otamotxa ezizenez. Atxoste aldeti ekarten euskuen umeai Marie Basokoren ogia. Atxosteti agertzen zan, astean behin edo, asto ganean, ogi zuridun andrea, lehenago hemendik hara joana. Atxosteti etorten jakun, urtean birritan gitxienez, gaztedi urduria, zantzoka ta kantari, auzoko jaiari bizitasuna emoten.

Zer zan guretzat Atxoste? Erbestea, edo behintzat munduaren bestaldea. Gure mundua egunero begien aurrean ikusten genduan zan: gure herria baino askoz gehiago ez. Mundu horren azkenengo mugak: Gorbea ta Orozko aldeko mendi erreskadak bateti, Serantes ta Ganekogorta, besteti, eta han, urrin baten, Burgos aldera edo, lausopean galtzen ziran lurren baltzunea, guretzat izen bakoa.

Urteak igarota, Durango aldean nintzala, barreak emon eustan Atxoste izenori entzunda. Nik Atxosten nintzala uste, eta neu nintzan han atxostekoa, bestaldekoa. "Ara, ba", esan neban nik, "herri batekoak gara guztiok hemen. Zuek, atxostekoak, gu bere bai".

Izenez bat gareanok, horraitio, ez gara alkartasun txarrean ibili. Gure arteko mendi ta hatxak ez dira muga izan, bide ta zubi baino. Lehenago ez zan oraingo moduan; baterik bestera joateko lehenago ez zan inor zelarik zelai Lemoatik zehar joango; artez hartzen eben mendi-bidea. Holantxe izan da oraintsura arte. Hor dagoz oindino mendiko bideok, hainbeste oinek zapaldu ta sakaturik antxinarik eginak. Eta oinak bakarrik ez; lekuan-lekuan burria ta sutautsa be erabili behar izan ziran bidea urratzeko.

Lino Akesolo, in Adolfo Arejita "Lino Akesolo gogoan jaiotza mendeurrenean", *Idatz & Mintz 51*.

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera erudian ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

“ Nik uste dot (andrai) tratu txarrak (emotea) gizonen arazoa dala eta gizonen arazoa danez, gizonak konpondu behar dabela (...) Zergaitik ez dabez manifestazioak egiten kalean? Gizonak ez badabe arazo hau konponduteko ebatzia hartzean, karu ordainduko dogu, ez dira hilketak amaituko. Gizonak manifestazio jentetsuak egin behar dabez, honek inpaktu handia eukiko leuke hedabideetan. Begien bistako da gizonak tratu txarren kontrako manifestazioak egin behar dabezala”.

Jose Saramago

<http://www.youtube.com/watch?v=qRUKp12btzg>

Zemendiaren 25ean, gizonak alkarretaratzea egin eben Igorren. Lanean, andrak batez be, sufriduten daben sexu jazarpenaren kontra agertzeko.



Gorosti
LORAZAINTZA

Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bildosola Industrialdea E2 Pab. 48. 142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com

agoa Ortodontzia
hagin klinika Implantateak
Estetika

Marina Urigoitia Aitekoe
Odoztropea

Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bikala
T. 94 631 50 39

Marina Urigoitia MD
R.P.S. 2006

EXCAVACIONES
MARGOIZA

Isaki
Martin Gorostiza

Ubideratzeak
Lurrerauzketak
Baso pistak
Ur Putzuak
Era guztietako hondeaketak

Bº URIBE - 48144 ZEANURI
e-mail: margoiza@euskolnet.net

Tel. 607 272 424
610 271 128
Tel/Fax: 94 433 22 28

ARRATIA

Espainiako hauteskundeak gurean

Zemendiaren 20an, Espainiako Kongresu eta Senadurako hauteskundeak egin ziran.

Erredakzioa

PPk irabazi zituan hauteskundeok Espainian, PSOEk, barriz, hondamena sufridu eban. Hego

Hego Euskal Herrian oster, Amaiurrek 7 jazarleku lortu zituela esan behar da, EAJ-PNVk 5 jazarleku lortu zituan, horreetako bat Aitor Esteban zebe-

Amaiur koalizioak lortu ditu boto gehien gurean

riotarrak, PP-UPNk 5, PSE-EEK 5 eta Geroa Bai alderdiak 1. Senadurako oster Ruth Martinez (EAJ-PNV) zeanuriztarrak be jazarlekua lortu eban. Hona

dakarguz BEGITUREN eremuan izandako hauteskunde orokoren emoitzak, hemen Amaiur koalizioa izan da boto gehien lortu dauana.

Herria	Erroldea	Abstentzioa	Amaiur	EAJ-PNV	PSE-EE	PP	EB-B	PACMA	Eb	EQUO	UPyD
Arantzazu	285	39 [%13,68]	115	107	11	5		2			
Areatza	893	186 [%20,83]	276	297	46	55	9	1	2	2	5
Artea	601	102 [%16,97]	220	209	18	29	4	1	2	5	
Bedia	792	189 [%23,86]	151	325	51	50	14		1	1	2
Dima	1.093	212 [%19,4]	484	343	9	18	9	4		3	1
Igorre	3.299	901 [%27,3]	1.036	1.004	147	106	35	7	4	4	14
Lemoa	2.620	666 [%25,4]	783	675	189	158	58	5	7	13	16
Ubide	148	38 [%25,6]	66	30		8	4			1	
Zeanuri	1.027	182 [%17,7]	376	406	16	23	8	1	2	4	1
Zeberio	882	230 [%26,0]	274	329	19	11	5	1		3	
GUZTIRA	11.640	2.745 [23,58]	3.781	3.725	506	463	146	22	18	35	40

ARRATIA

Konpromisoa eta jaia Euskerearen Egunean

Euskerearen Nazinoarteko Eguna, abenduak 3, atakia polita da gure hizkuntzearen egoera gogora ekarteko eta, jai giroan, honen biziraupena bermatuko dabezan konpromisoak hartzeako.

Erredakzioa

Igorren hitzarmen bat sinatuko da. "Urte osoko beharraren emoitzea izango da abenduaren 3an Igorreko kultur etxean egingo dan ekitaldia" dinoe antolatzaileak. Kultur eta kirol alkarreak euskerearen erabilera eta presentzia bultzatuteko eta araututeko hitzarmena sinatuko dabe Udalgaz batera. Lau urteko iraupena eukiko dau eta hurrengo arloak arautuko dauz: eza-gutza edo hizkuntza gaitasuna; euskerearen barne erabilera eta euskerearen kanpo erabilera. Aitatutakoez gain, hitzarmenki-deen arteko harremanak (Udala eta alkarreak) eta hitzarmenaren dinamizazioa eta jarraipena be zelangoa izango dan zehaztuko da.

"Hitzarmen sinaketea pauso garrantzitsua da euskerearen erabilera aurrera egiteko, baina oindino garrantzitsuagoa da hitzarmenari egingo jakon jarraipena. Horretarako alkarre baxotxak ordezkari bat izentauko dau Udaleko euskera teknikariagaz batera hitzarmenaren dinamizazioaz eta jarraipenaz arduratuteko eta

hiru hilerik behin, gitxienez, alkar-tuko gara" dino Amaia Arauzo teknikariak.

Konpromisoa baina ez da Igorren bakarrik izango eta hainbat ekitaldi antolatu dira gurean:

- AREATZA. Abenduak 2,** 19:00etan, Aldatzen laguntzen antzerki taldeak *Ispilua* antzez-lana Udal Aretuan. 20:00etan, triki kantu poteoa. Kantu liburuak bananduko dira.
- Abenduak 3,** 11:00etan, kalejire. 11:30ean Testuaren irakurketea. 12:00etan eskulan tailerrak. 18:00etan ipuin kontalaria (4-9 urte). 19:00etan apostua, Tribiala. Amaituteko txokolatea eta karaokea.
- DIMA. Abenduak 2,** Goizean eskolan talogintza eta arrastian jaialdia.
- Abenduak 3,** 12:00etan, Euskerearen aldeko ekitaldia. Gazte Bari jantza taldea. 1986ko bandoaren irakurketea plazan. Euskerearen alde globoak askatutea. 17:00etan, pelota partiduak. 18:00etan, Euskerearen aldeko hormairudia aterpean (frontoi txikian). 19:00etan, Ipuin poesia eta abarren irakurketea aterpean (frontoi txikian). Gero txokolate jana.
- IGORRE. Abenduak 3,** 18:30ean, Euskerearen erabile-

- rea bultzatzeko hitzarmen sinaketea Igorreko kirol eta kultur alkar-te eta Igorreko Udalaren artean. Lasarte Aretuan.
- Lip Dub-aren *making off-a*.
- Igorre eta euskerea dokumentala.
- Hitzarmen sinaketea.
- Lip Dub-a pantaila handian.
- Barauskarria.
- LEMOA. Abenduak 2,** 19:30ean, Kultur Gunean, Jon Urrazak umore antzerkia *Bestela ondo, ezta?*
- Lemoako eskolan konpromiso ekitaldiak egingo dira: abestiak, mezuak, jolasak, horma-irudiak, argazkiak...
- ZEANURI. Abenduak 3,** 17:00etan, talo tailerra eskolan. 19:00etan herritar batek euskerearen aldeko mezua irakurriko dau eta herriko artistak –bertsolariak, korukoak, jantzariak, txistulariak, trikitilariak, pandero joleak...- herriko plazea girotuko dabe. Gero talo jana egongo da.
- ZEBERIO. Abenduak 3,** 12:00etan, Herri kirolak Ermita-barriko frontoian. Zeberioztarren arteko lehia. 15:00etan, bertso-bazkaria. Arkaitz Estiballes eta Angel Mari Peñagarikanogaz Ermitabarriko Taberna Zaharrean.

IGORRE

Ikasleak zakarrontziak eta iturriak eskatu deutsiez alkateari**Erredakzioa**

Eskolako Agenda21 programearen barruan Inazio Zubizarreta Ikastetxeko ikasleak eta Arratia Institutukoak, euren ikastetxeetan ikusten dabezan preminak edota hutsuneak azaldu eutsien alkateari Igorreko udaletxera egindako bisita baten. Bisita honen helburua bikotxa zan. Alde batetik, udaletxea ezagutu eta ingurumenari jagokonean zer egiten dan jakin. Bestetik, Eskola Agenda 21 (EA21) proiektua alkateari ezagutiarazo eta aurreko ikasturtean herria eta ikaste ingurua hobetuteko eskatu ebenaren inguruko jarraipena egitea.

Ikasleak eta Beinat Anzola Igorreko alkateaz gainera, Aitor Uriguen Arratiako Udalen Mankomunitateko (AUM) ingurumen teknikaria, eta Rosa Arza eta Maite Elorriaga ikastetxe eta Institutuko EA21eko koordinatzaileak egon ziran besteak beste.

ARRATIA

505 euroko isuna Gorbeiaiko kurutzean**Erredakzioa**

Abuztuak 6an Borja Irizar abokatu bilbotarra Gorbeiaiko kurutzera joan zan koadrileagaz. Tontorreira heldu ziranean "Gora Euskal Herria askatuta" oihu egin eban Irizarrek. Orduan, inguruan egoazan Guardia Zibil batzuk hurreratu jakozan abokatuari eta Nazio Agiria eskatu eutsien. Gorbeiaiko tontorrean egoazan mendizaleak guztiz harrিতa egoazan egoera horregaz. Irizarrek karneta erakutsi eta hor amaitu zan kontua. Baina handik aste batzuetara Arabako Espainiako subdelegaziotik jakinarazpen bi heldu jakozan etxera, 200 eta 305 euroko zigorra eukien espediente bigaz. Lehenengoa "agintearen aginduak ez betetearren" eta bigarrena "jentartearen segurtasuna asaldatzen daben edo asaldatu leikien erreakzioak eragitearren". Irizarrek errekurridu egin ditu eta ondino ebazteko prozesuan dagoz alegazinoak.

ARRATIA

Kaleko argietako kableak eta kobrezko erretenak lapurtuten dabiz

Aspaldi honetan, Arratiako hainbat lekutan kableak eta kobrezko erretenak lapurtuten dabiz, baina ez hori bakarrik.

Erredakzioa

Artean, barbarako, zemendiaren hirugarren astean lapurretak egin zituen. "Sarasolan kableak ostu dabez eta beste leku batzuetan be bai. Erremintak ostuteko be garaje batera sartu dira eta herriko plazan be erremintak lapurtu dabez. Zerrategian be birritan. Egun baten erramintea lapurtu eben eta hurrengo egunean kableak" azaldu eutsan BEGITURI Arteko aguazilak.

Igorren, "futbol zelaiko torretxo nagusiko kable guztiak eta kanpoko argiteriako kableak lapurtu dabez. Udaletxeko kobrezko erreten eta zorrotan, hirutan. Herrian be, estolda tapak eta kanposantuan hilobi batzuetan be egin dabez kalteak eta kanpoko argietako kableak eroan ez, baina ebagi egin dabez" azaldu deutso BEGITURI Igorreko Agustin Elepe aguazilak.

Areatzan behin baino gehiagotan sartu dirala

ugerlekuetako tabeman, baina ezer eroan dabenen barririk ez daukala esan eutsan BEGITURI Areatzako aguazilak.

Kableak eta erremintak bakarrik ez

Kableak eta erremintak badira be gehien lapurtu dabezan gauzak, ez dira horreek bakarrik izan eta

taberna eta etxeetara be sartu dira lapurrak. Holan, Diman udatik hona farmazian, eskolan eta etxe batzuetan egin dabez lapurretak.

Zeberion be, kableak birritan ostu dabez kaltzada errealean, Zubibari auzunetik, Ermitabari doan auzunerako zatian eta laupabost baserrian sartu dira eta erremintak, dirua eta abar ostu dabe.



Igorreko futbol zelaiko argi torreak.

ARRATIA

Mankomunidadeak 18 lanpostu barri sortuko ditu**Erredakzioa**

Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM) Lanbidek emondako 180.000 euro bideratuko ditu 18 langabe prestatu eta kontratatuko. Mankomunidadearen enplegu plana prestaziorik jasoten ez daben edo diru-sarreraren bermerako errenta baino jasoten ez dabenentzat dago zuzenduta, eta aurreikusitako kontratazio guztiak gaur egun ez dagozan postuetarako egingo dira.

"Euskadiko Prestakuntza Funtzak bailarako gizarte eta lan egoerari buruz egin dauan azterketa sakonaren ostean, enplegu plan bat aktibatu gura izan da, modu horretan 18 persona kontratau ahal izateko interes sozialeko eta zerbitzu publikoko zenbait jardueretarako" azaldu dau Iñaki Olabarrik AUMko gerenteak. Lenengo fasean kontratuok sei hilabeteko iraupena izango dabe.

Bost proiektu identifikatu dira, eta bertan sortuko dira postu barri horreek. IGSn (informazio

geografikoko sistema) lan egiteko teknikari laguntzailea, informatikari-teknikari bat webgunea modernizatu eta gaurkotuteko, artxiboko laguntzaile bat eta 2012an abiarazoko dan ingurumenaren sensibilizaziorako kanpainarako 10 dinamizatzaile. Baita be, hezitzaile bat martxan dagoan drogamenpekotasunaren eta sexualidadearen inguruko konzientiazio kanpainak egiteko. Azkenik, aisialdiko begirale bi kontratauko ditu AUM-k, abian jarri diran programa eta ekimenai bultzadea emoteko.



Mankomunidadea.

ARRATIA

Sinadurak euskal egutegi propioaren alde**Irati Urien**

Euskal Herri osokoakaz batera, Arratiako Ikasle Abertzaleak egutegi propio baten alde dabiz burrukan. Geure bizi eritmoa espainiar egutegiak marketan dauala salatu dabe, klase egunak edo jai egunak inposatu. Honek helburu bi dituala jakinarazo dabe. "Batetik, nazinotasun sentimentu arrotzak errotzea; bestetik, gure herriaren ukazino bidean urratsak emotea" dinoe. Iakoak insumisinoa egiteko deia luzatzen dabe, egun horreetan ospatzekorik ez dagoala esanez eta euskal egutegi propioa ereigiteko ibilbidean segiduz. Ikasle baten esanetan, "egoera aldatuteko geure artean indarrak batu eta alkarregaz lan egitea ezinbestekoa da". "Txikitasunean garaipenak eginez, handitasuna aldatzeko gai gara" dino eta hasi daben sinadura bilketara jentea bildutea eskatuten dabe. Gaiari lotuta, konstituzio egunean, abenduaren 6an, Igorreko herri eskoletara hurbiltzeko konbitea luzatuten dabe.

BERBALAGUN

ZER DA? **NON?**

Zelan?

ONDO PASAUKO DOT?

NORENTZAT DA?

ZELAN?

ZELAN IZANGO DA?

ZENBATERO?

NOR JOANGO DA?

ASTEAN ORDUBETEZ TALDE TXIKIETAN EUSKERAZ BERBA EGINGO DOZU
PRATICARÁS Y HABLARÁS UNA HORA A LA SEMANA EN EUSKERA

EUSKERAZ BERBA EGITEKO ERRETTASUNA LORTUKO DOZU
CONSEGUIRÁS FACILIDAD PARA COMUNICARTE EN EUSKERA

ARRATIEREA PRAKTIKAUKO DOZU
PRATICARÁS EL ARRATIANO

JENTEA EZAGUTUKO DOZU
CONOCERÁS GENTE

94 631 53 84

eta
EUSKERAZ BIZIKO ZARA
VIVIRÁS EN EUSKERA

a.arauzo@igorre.net

DIMA

Bardintasun Foroa osotuteko batu dira

Erredakzioa

Zemendiaren 19an, 23 dimoztar batu ziran udaletxean Bardintasun Plana aurrera ateratzeko foro bat sortzeako.

Dimako Bardintasun Plana 2009an ipini zan martxan eta 2013 urtera arteko indarraldia izango dau. Herritarrek Bardintasun Planaren

dimoztarren ustez Dimako preminarik handienak eta, beraz, lehenasuna daukienak herritarrek bardintasunaren garrantziaz konturatzea, zaintza etikak bultzatzea, esfera publiko eta pribatuaren arteko marra gainditzea, gazteen artean bardintasuna bultzatzea eta eskolan eta familietan bardintasun baloreak bar-



Udaletxean batu ziran herritarrek.

helburu orokorrak ikusi eta horreek lortzeako egin beharreko ekintzak preminaren arabera sailkatu zituen.

Idoia Legarreta bardintasun teknikariak Bardintasun Plana zer dan azaldu eta moderatzaile beharrak egin zituan, eta planaren zergaitiaren arrazoi bi emon zituan, "Udaleko ekimenen bitartez, desbardintasun egoerak erreproduzidu edo gainditu daiekguzalako eta bertako eragile eta alkarteak, alkarlanean lan eginaz balore eta kultura aldaketea bultzatu daiekgulako".

Dimoztarrak zaintza etikak bultzatu gura dabez

Batzar honetan parte hartu eben

neratzen laguntzea dira. Helburu honeek herritarrek informauz, sensibilizauz eta ekintza bateragarriak eginaz jorratzea planteau eben.

Alkarteen inplikazioa

Foro honez gainera, Eider Aldape Bardintasun Planaren lan taldekoaren eretxian "alkartein inplikazioa guztiz beharrezkoa da plan hau aurrera eroan ahal izateko. Horregaitik Bardintasun Plana sektoreka aztertzea litzateke hurrengo pausoa: eskolegaz, kultur taldeakaz, aisialdi taldeakaz, guraso alkarteagaz...".

ZEANURI

Bardintasun Plana

Erredakzioa

Zeanurin Bardintasun Plan bat egingo dauan foro bat sortzeako deialdia egin eban Udalak, eta zemendiaren 23an, zazpi persona batu ziran udaletxean helburu ho-

rregaz. "Bost andra agertu ginan eta beste bi enpresatik. Zazpiron artean diagnostiko bat egiten ibili ginan" azaldu deutso BEGITURI Karmele Beobide Masala taldekoak.

Plana zezeilerako eginda egoitea gura dabe forokoak. Hori dala eta, bete beharreko epeak eta bardintasun plan horren barruan sartu daitekezan ekintzak adostu zituen. Parte hartze aktiboa zelan bermatu be eztabaidatu zan bertan.

LEMOA

"Ezkutuko" txokoa topau dabe Udal lokaletan

Erredakzioa

Udal agintariak txoko bat topau dabe Udal brigaden lokaletan. Udal gobernu ikertzen hasi da nork egin eban txokoa eta horretarako erabilitako dirua ea diru publikoa zan jakiteko. "Eskandalu bat da. Zubiziku Udal pabilioiaren tarteko solairuan lujuz jantzitako txoko bat topau dogu. Ez dakigu nork edo zertarako egin eban. Baina argi dago ez dagoala lege barruan eginda. Udal Gobernu zein konponbide emon honeri azertzen dabil" dinoe Udaletik Atxubieta aldiakarian.

Garak zemendiaren 22an publikutako informazioaren arabera, ordurako Saioa Elejabarrieta Lemoako alkateak bitan deitu eutsan Jabier Beobideri txokoaren gainean itaun batzuk egiteko baina ez eban

erantzunik jaso. Egun bi beranduago erantzun eban Lemoako EAJ-PNVk bere webgunearen bidez.

"Batzar leku honek ez eban inongo sekreturik suposatzen"

Aitatutako webgunean EAJ-PNVk txoko hori pabilioia erosi zanean, 1999-2003ko legealdian egin zala dino eta ez zala sekretua. "Batzar leku hau eraigi zan, bertako teknikari eta garai haretako alkatearen behariznak betetzeko. Leku hau erabilia izan zan zenbait instituzino eta enpresatako ordezkariak bertan batzeako. Kalkulau daiteke batzar-leku honen ekipamentuaren kostea 7.000€koa dala. Leku hau, ez dago ostalaritza establezimentu lege zientautau, hau ez dalako bere funtzino eta bere izatea ez da ilegala" dino EAJ-PNVko Lemoako Uri Buru Batzarrak.

ARRATIA

Hondakinak gitxitzeko kanpaina abian ipini dau Mankomunitateak

Erredakzioa

Hondakin prebenzioaren Europako astearren testuinguruan, zemendiaren 25ean Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM) martxan ipini dauan kanpainearen bari emon eban Josune Gorospe presidenteak. Arratiako webguneko Arratiatruke izeneko atala daborduko erabili daitekeala be emon eban jakitera.

Mankomunitateak Hiri Hondakinak Prebenitzeko Plana abiatu dau, hainbat fasetan garatu beharrekoa. Aurtengo jarduerak hainbat jasotzaileru zuzenduta dagoz: zerbitzuen sektoreari (merkataritza eta ostalaritza, eta enpresa txikiak eta ertainak), tokiko administrazio eta zerbitzu publikoai (Udala, hezkuntza, osasuna, kultur, kirol eta beste arlo batzuetako instalazioak), eta herritarri.

Trukea, ikuskaritzak eta sensibilizazio kanpaina

Hiru dira hondakinak prebenidute-

ko planaren barruan aurreikusitako jarduerak: hondakin ikuskaritzak, herritarrek sensibilizetako kanpaina eta AUMeko webgunean, Arratiatruke atala.

Arratiatruke daborduko martxan da eta bertan bigarren eskuko merkadua, denporaren bankua, eta abar aurkituko ditu erabiltzaileak. Ikuskaritza txikiak jagokonean, "AUMeko establezimentuak bisitau ditue eta horreetan hondakin kudeaketea ikuskatu dabe; gero, hobetuteko proposamenak egin ditue, eta ekintza plana osotu dabe. Horretarako kontratautako enpresa batek abiatu dau ekimena abenduan; gero, enpresa berak mankomunitateak kontratautako langileak prestauko ditu, langileak zenbait hilabetez ekimenari jarraipena emon deioen" azaldu eban Gorospek.

Herritarrek sensibilizetako kanpaina hileon egingo da. Prezikipena izenez, prebenzioa eta birzikipena kontzeptuak zabaldu gura dabez.

BEDIA

Zuntz optikoa hasi dira ipinten Bedian

Erredakzioa

Udal iturrien arabera, Euskaltel zuntz optikoaren lehenengo zatia ipinten hasiko da Bedian. Lehenengo zatia, Agirre Lehendakaria enparantza inguruan dagoan lorategian komunikazio nodoa ipintea eta Jandoniz eta Errakaondoko kaleetatik kableak hedatzean datza. Bigarrenengo zatia, datorren urtean egitea dago aurreikusita.

ZEBERIO

Artisau eta Bertako Produktuen XII. Azokea

Erredakzioa

Abenduaren 4an, Artisau eta Bertako Produktuen Azokearen hamabigarren edizioa izango da Zeberion. Plaza inguruan, 32 erakusmahaitan, baserriko produktuak, artisauen lanak edota abereak erosteko aukerea izango da.

Zeramika lanak, bitxiak eta egur landua, besteak beste, erosi ahal izango dira azoka honetan, baina baita ortuariak eta gaztaia be. Oiloak, ardiak eta zaldiak ez dira faltako urteroko zita honetara.

"Baserritar gehienak bizkaitarrak dira, Igorre eta Orozkotik datoz batzuk, baina Audio eta Amurriokoak be badagoz. Igaz baino gehiago dira etortekoak" azaldu deutse BEGITURI udal iturriak.



Ortuariak.

Ametzola Landetxea
Ametzola 1-1
48499 Zeberio
629 429 870
www.ametzola.net

bbk

HERRIKO BENTA
HOSTAL
HERRINO PLAZA
48142 ARTEA (ZEBOGA)
Tel. 94 631 72 96

FRACKING

"Saia" izena dauka gurean gasa fracking-aren bidez aterateko baimenak

Araban egindako zundaketa batzuen arabera, erregai moduan erabilteko 185.000 milioe m³ gas (185 BCM) egon leitekezala emon eban jakitera Patxi Lopez Lehendakariak Dallas-en (AEB), urri bigarrean hara egindako biajean. Gas hau ateratzeko haustura hidraulikoa edo *fracking*-a erabiliko dabe. Gateizko Bilduk mozino bat aurkeztu eban zemendiaren 25eko udalbatzan, honen kontra.

Erredakzioa

Fracking-a erabiliz gasa aterateko aurreratuen dagoan proiektua Gasteizeko "Enara" izenekoa izan arren; Arratia bailaran be, ikerketa horreek egiteko baimena dauka Hidrocarburos de Euskadik (Energiaren Euskal Erakundearen enpresa). Baimena, BOEko 179 zenbakian, 2011ko garagarriaren 27koan, publikatu zan. 49.752 ha.ko ikerketa eremu honen barruan dago Arratia eta "Saia" izena dauka baimen horrek. Ubide, beste emakida baten eremuan geratzen da "Mirua" izeneko eremuaren barruan, hain zuzen be.


Ikerketea egiteak ez dakar derigor gasa ustiatzea, baina hauxe izaten da *fracking*-aren lehenengo pausoa. Teknika honen prezioa ingurumenaren eta osasunaren aldetik jakin beharrekoa da.

Gas 5.000 m.tara eta arbel hatxen artean

Gas konbentzionala hatx porotsuen artean dago, boltsatan, eta gasaren boltsara heldutakoan, gasak urten egiten dau. Baina gas ez-konbentzionala ateratzea gatxagoa da. Hatx ez porotsuen artean egoten da, arbel harrietan eta harri barruan mikroburbuiletan. Ateratzako hatxa apurtu egin behar izaten da. Gainera, oso-oso sakon egoten da, Arabakoa 5.000 m.tara dago. "Behin plakara hel-

Arratia bailaran
ikerketak egiteko
baimena dauka
Hidrocarburos de
Euskadik

Gehigarri kimikoen
artean, bentzeno,
xileno, zianuro, eta
beste gehigarri sano
toxiko batzuk dagoz



Zundaketa baimen eta emakida mapa *Fractura Hidraulica No* webgunetik aterata.

dutakoan, horizontalean sartzean dira, km. eta erdi inguru, eta lehenengotik leherketa txikiak egiten dira haustura txikiak egiteko. Gero hara, milaka tona ur, harea eta elementu kimikoak sartzean dira, oso presino altuetan -700 edo 800 atmosfera-. Ur honek hatxa apurtuten dau gasa liberauz eta gasa, ura harea eta gehigarri kimikoak batera lur azalera ateratzen da. Gehigarri kimikoen artean, bentzeno, xileno, zianuro eta beste

gehigarri batzuk, sano toxikoak, dagoz" azaldu deutso BEGITURI Josue Bilbao. Bilbao, Kantabriako Haustura Hidraulikoaren Kontrako Asanbladako kidea da eta gaiaren gainean gehien dakienetakoa Estaduan.

Teknika honegaz gasa modu masiboan AEBn bakarrik ustiatu da. Han 50.000 hobi inguru egin ditue. Hobiak oso sakon dagozanez, lur azpiko urak ez kutsatzeko estali egiten ditue hobiak altzairu

eta zementoagaz. Baina presino aldaketak hain dira ugariak eta handiak, behin baino gehiagotan apurtu dirala eta metanoa, hau da, atera gura dan gasa, uretara pasau eta hortik etxeetako hoditerian sartu eta etxeko iturrietatik uragaz batera metanoak urten dau. Horrek esan gura dau, akuiferoa metanoz kutsatu dala.

Gasteizen Subijanako akuiferoa urak erabiliko ditue Lehendakariak Dallas-en aitaturako

Zugaitik BEGITUTen dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com
Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 IGORRE
Tfnua: 94 631 80 04

ellaURI
HOTEL
Naturazko ospitalea
Landa Turismoa
Enpresa Zerbitzuak
Altzusta 38, 48144 ZEANURI | +34 946 317 888 | ellauri.com

ASESORIA
Gorbeialde
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B · 48143 Areatza
Tfnua. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

expert **ARRATIA**
E-posta: expertarratia@cordevi.com
Lehendakari Agirre, 16 Tel. 94 673 60 55
48140 IGORRE (BIZKAIA) Fax 94 631 52 89

Bizkaifisios SLk bi zentro ditu
Fisioterapia Zentroa Igorre
Elexalde 4
Telefonoa 94 631 55 08
Andra Mari Klinika
Fisioterapia Zentroa
Pontzi Zabala 1, Galdakao
Tel/faxa 94 457 23 64
www.bizkaifisios.com

arratiako instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasa
Aireztatze sistemak - Aire zurgatze zentralizatuak
Tutak kontrolatuak zerbitzuak eta mantentze lanak
Igorreko Industriales, Pab. 07
Tel. Fax 94 673 62 76
819 734 516
48140 Igorre Bizkaia

hobiak ustiatzeko. Itziar Ameztoty Gasteizko Bilduko zinegotziaren arabera, "Sano litekeana da, Subijanako akuiferoa kutsatzea *fracking*-aren bidez. Izan be, erabilten diran produktu kimikoen % 30 baino ez da itzultzen lur azalera".

Akuiferoak kutsatzeaz gainera, gorako bidean lurpean dagozan metal astunak edo elementu erradiaktiboak be ateratzen dira lur azalera.

Amerikanuen laguna

Iker Armentiak Cadena Ser irrati kazetariak *No sin mi mochila* bere blogean, zera dino: "Patxi Lopez Lehendakariak AEBra egindako bisitan, Arabako lur azpian gasa topau dabela jakinarazo eban Espainia osoaren eskariari 5 urtez edo Euskadikoari 60 urtez erantzunteko beste. Ustiapenak datoren urtean hasi daitezke."

Momentuaren berotasunak gauza batzuk ibxi zituan argitu barik. Alde batetik, gas hau ateratzeak, *fracking*, dakarzan kalte ekologikoak eta osasunerako; eta bestetik, Eusko Jaurritzaren aliantza Estatu Batuetako petrolio enpresa bigaz: Heyco eta Cambria enpresakaz".

Lehendakariak proiektu hau ekologikotzat saldu gura dau "gure herriarentzat estrategikoa dan proiektu baten aurrean gagoz, etorkizunerako jasagarritasun bermea daukana eta horretarako aliatu onena daukagu: Heyco" esan eban lehendakariak. Oso ondo dokumentautako artikulu baten Armentiak Heyco enpresea zuzentzen dabenak aldaketa klimatikoa ukatzen dabela eta Bushen Administrazioagazko loturak dituela salatzen dau.

Europako hainbat herrialde-tan galarazota


Europako Parlamentuko Ingurugiro, Osasun Publiko eta Elikagaien Segurtasuneko Batzordeak egindako txosteneko ondorioetan esaten da kolokan ipini behar dala ea lurrean produktu kimiko

toxikoak sartzeak lege barruan alagarazota egon behar dauan. Baina praktikan anbiguedade handia dago. "Frantzia debekatuta dago

eta bere azkenengo fasean dago. Azkenengo fasea hobiak egitea da eta lehenengo biak 2012ko lehen hiruhilekoan egiten hastekoak

kontuan izan behar da, metanoa dala ateratzen dan gasa eta hau CO₂ baino askoz gaiztoagoa dala. Ur ziklo osoa hartuta, AEBko uni-

ditu. Baina hori, holan da erretzeko momentua bakarrik hartzean bada kontuan. Bizitza ziklo osoa hartu ezker, ez da holan".



Josue Bilbaok BOEn agertutako koordenadak ipinita Googleearth-etik ateratako mapa.

baina enpresak ez dabe berenberegiz esaten zein hidrokarburoren bila dabizen eta zelan aterako daben eta, orduan, ez da oso eraginkorra. Alemanian be moratoria bat dago" dino Bilbaok. Erresuma Batuan izandako lur ikara baten zergaitia haustura hidraulikoak lur azpian egiten dituan leherketak izan eitekezala emon ebalak jakitera BBC-k dino Ameztoty.

Estadu mailan, barriz, inportanteena Arabako "Enara" emakida da. Baimena 2006an emon eben

dira. Hori ustiatzeko, ura Subijantatik aterako dabe.

Ur kontsumo handia eta metanoa

Gauza bi dira kontuan hartzeakoak: alde batetik, haustura hidraulikoak suposatzen dauan ur kontsumo handia. "Sei hobiko plataforma baterako, hori egiten dabe orokorrean, 172.000 eta 210.000 bitarteko tona ur behar izaten dira. Ur kontsumo handia da hori. Eta negutegi efektuari jagokonean be

bersidade baten egindako ikerketan baten arabera, iktaza baino % 30 eta % 100 tartean kutsagarriagoa izaten da" dino Bilbaok.

Deigarriena da, inbersino jasagarri moduan saldu gura deuskuela. "Hidrokarburoen industriak ukatu egiten dau negutegi efektuko gasak sortzean dituala *fracking*-ak. Euren propagandea zera da: gas naturala ateratzen dogu eta gasak erretzean -eta hori egia da- iktzak edo petrolioak baino negutegi efektuko gas gitxiago sortzean

Lehendakariak dino aterako daben gasa izango dala energia barriztagarrien bizkarra. Energia barriztagarriak, eolikoak, esaterako, ezin dau denpora guztian egon energia ekoizten, haizerik ez dagoanean ez da energiari sortzean. Orduan haizerik ez dagoanerako zeozer euki behar da energia produziduteko eta honeen estrategia hori da. "Gure apostua da energia barriztagarrien alde eta horreek lagunduteko etxean bertan daukagun gasa".

Gure Ikastetxeak

Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urteik 18ra. Euskalduna, kalitatekoa, herrikoa

Arratia BHI Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igoerre
Ikastola Arratia HI Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea
Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio
I. Zubizarreta HI Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igoerre
Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza
Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri
J.B. Eguskiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa
Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorreko Bigarren Hezkuntza, Btxelergoak, Hezkuntza zikloak



JANDONIZ

nagusientzako etxea
residencia para mayores



Jandoniz, 2 - 48390 BEDIA Bizkaia - tel. 94 631 31 30 - www.jandoniz.com



Kendall Languages

- A, B eta C perfil linguistikoen lorpena Trinity College London eta Oxford Universityren zentru ofiziala, azterketak zentruan bertan eginaz
- Cambridge, EOI, First Certificate... azterketetarako prestaketea

Elxalde 4 behea - 48.140 Igoerre (Bizkaia) - 94 657 73 48 - www.kendall-languages.com

RUGBYA

Kadeteak galdu,
nagusiak
irabazi

Ainhoa Duñabeitia

Zekorretako kadeteak zemen-diaren 26an jokatu eben azken partidua Santanderreko talde baten aurka. Partidu txarra gazteena 5-36 galdu eben eta.

Nagusiak, ostera, irabazi egin eben. Arrasate taldea izan eben aurkari zekorrek. Etxekoak estreinau eben markagailua, lehe-

nengo entsegua sartuz. Halanda be bigarren zatia hasi eta gitxira, arbitroak partiduen amaiera adierazo eban. Arrasateko taldea jokalaria gitxiagogaz ebilen jokatu eta ez eukan aldaketarik egiteko jokalaririk. Arbitroak, legeak holan ezin dala ligako partidurik jokatu esaten dauala adierazo eban. Horregaitik partidua bertan behera gelditu zan. 34-6 izan zan emoitzea Arratiko Zekorren alde. Txalo zaparradea jaso eben talde biak, Arrasatekoak zelaia itxi ahala zelaia parkamena eskatu eutseen.

Hilaren 3an ez da ligako partidurik egongo. San Txismen "partidu historiko" bat jokatu da: Arratiko Zekorrek taldearen historian zehar ibilitakoak partidua jokatu dabe eta.

PELOTEA

Eskolaumeen pelota jaia Igorren

Erredakzinoa

Aurten be, Ikastolen Elkartek antolatuta, "Arratiako Pelota Jaialdia: Pelota Sustatzen" ospatu da zemen-diaren 24an Igorren. Bertan, Areatza, Dima, Igorre, Lemoa, Zeanuri eta Otxandioko 227 umeak hartu eben parte. Eguraldiak lagundu eban, hiru lekutan olgau eben umeak: plazako frontoian, kiroldegiko frontoian eta eskoletako aterpean. Goizean, leku bakotxean 9 frontoi txiki antolatu zituen, umeak eskuz, palaz eta potoz (plastikozko zesta txikia) pelota jokodesbardinak egiteko. "Umeak zoragarri dabiz pasetan, murgil-

duta dagoz jokoan eta irakasleen inplikazioa itzela da" balorau eban Mikel Azanza ikastoletako Soin Hezkuntzako arduradunak.

Arrastian, ikasleak profesional

izandakoen jokoa ikusteko aukerea izan eben. Han egon ziran Imanol Agirre eta Xabier Galarza, beste batzuen artean, pelota ikuskizuna emoten.



Umeak Igorreko frontoian.

FUTBOLA

Danak segiduten dau antzera

Erredakzinoa

Arratia taldeko andrazkoak 4 puntu atera dabez azken jardunaldi bietan, Berangori etxean 3-0 irabazi eta Ugaogaz bana bardindu ostein. Lehen postuan dira arratiarrek 26 puntugaz. Gizonezkoak be bide bera daroe, etxean Le-

keitioren kontra husna bardindu eta Gatikari 0-1 irabazi ostein. Honeek be lehenengo dira partidua bat gitxiago jokatu euki arren 26 puntugaz.

Lemoa taldea ostera, azken partidua biak bardindu arren egoera eskasean dago. 19. dira sailkapenean lemoaztarrek 12 puntugaz.

FRONTENISA

Hamabi bikote frontenisean

Erredakzinoa

Aurrera doa Zeberion antolatu dan herri frontenis txapelketa. Hamabi

bikotek emon eben izena eta talde bitan dabiz jokatu sailkatzeko fasea. Talde bakotxean sailkatzen diran lehenengo bikote biak jokatu

dabez finalurrekoak. Abenduaren 20an izango da lehenengo, eta A taldeko lehenengo bikotea B taldeko bigarrenaren kontra neurtuko da. Hurrengo egunean barriz, A taldeko bigarrenak B taldeko lehenengo bikotearen kontra jokatu dau. Irabazleak finala jokatu dabe abenduaren 23an, 19:00etan.

Dia %
PEDRO AUTOSERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

CERRO ERAIKUNTZAK
Behoko suetan, harrietan, azulejoetan... aditua.
Tel: 605 71 64 17
Erreforma orokorrak

Gabon honeetan osasuna eta ondo egotea oparitu egizuz!
Zirkuitu hidrotermala, esfoliazinoa eta estalkia (txokolatea, mailukia, zitrikoak edo kafea aukeran) bakarrik 49 euro banakakoa, 80 euro bikotea
Maddi Ayarza produktuek egizu berezia zure Gabonetako otzarea eta % 15eko deskontua lortu*
Balneario Areatza
Askatasuna 50, bis - 48143 Areatza
94 657 54 50 - www.balnearioareatza.com
balnearioareatza@gruposasoibide.es

ZEKUTZE
JAYETXEA
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83

Elexalde
Meri eta Josetxu
Pinturak (kolore guztiak)
Egur babesleak
Suteak eta behe-suak
Garbiketa produktuak
Lehendakari Agirre, 31 bis - 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel. 94 673 62 34 - Fax: 94 673 72 38

indar
instalazio elektrikoak
Bildosola Industrialdea, pab. E 3-4
48142 ARTEA - BIZKAIA
t. 94 655 47 19
indars@indars.es • www.indars.es

AKETEGLA
GAY & LORA
IGORRE

Emilio Goitia banatzaile ofiziala
San Miguel
Ardoak Edariak
94 673 64 02 - Industrialdea E-3 Pabeloa (Igorre)

AHOLKULARITZA:
LEGE-LAN ARLOAN
ZUZENBIDE
ZERGA ETA DIRU BONTUETAN
ONDASUN HIGIEZINEN
ASIGURUTAN
Sabino Arana, 5-1. floor 94 673 71 41 - Fax: 94 673 64 05 - 48140 IGORRE

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tel: 94-673-70-87
Tel: 609-79-40-54

axular
kultur etxea
Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92
axularke@gmail.com

ekin s.a.
LAN PUBLIKOAK
INDUSKETAK
GARRAIKAK
UR SAREAK
SANEAMENTU SAREAK
BASERI ETXAK
PABELLOAK
URBANIZAZIOAK
Iturietz barrera 8 - 48141 Dima (Bizkaia)
Tel: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25
e-posta: c.ekin@telefonica.net

Pinturas Arratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

TXIRRINDULARITZEA

Diru laguntzen murrizketak dirala eta, lasterketa bat gitxiago

Abenduaren 4an, Ziklo-kros Munduko Kopa eta XXXV. Euskadi Sari Nagusia izango da Igorren Olabarriko zirkuituan. Urtero lez, munduko onenak izango dira gurean, "UCIk munduko 25 onenak derrigortu egiten ditu eta, Munduko Kopan parte hartzean" Arratia Ziklista Elkarte (AZE) presidentek Juan Mari Zurinagak jakinarazo dauanaren arabera.

Erredakzioa

Igorreko ziklo-kros proba hau mundu mailakoa izan arren, aurten arriskuan egon da "erakundeen eta batez be, Eusko Jaurlaritzaren laguntzen murrizketea dala eta". Horregaitik lasterketa bat kendu behar izan dabe, 23 urte artekoena.

Proba hau AZE eta Igorreko Udalak antolatuten dabe hainbat erakunde eta enpresak diruz lagunduta.

Igaz txarto ibili baziran AZEkoak Munduko Kopa eta Euskadi Saria antolatuteko diru laguntzak murriztu egin eutseezalako, aurten murrizketak oindino handigoak izan dira. Beste laguntzaile bat lortu dabela igazko murrizketea kubriduteko dino Zurinagak, "baina

hilabete faltan, Eusko Jaurlaritzatik deitu eta esan euskuen askoz diru gitxiago emongo euskuela. Bertan behera ixteko egon ginan eta azkeneko momentuan, laguntzaileak ebatzi eben diru gehiago emotea eta beste enpresa batzuk sartzeako be egin dabe behar. Horrerri esker ia kubridutea lortu dogu eta aurrera egitea ebatzi genduan".

Baina lasterketa bat kendu behar izan dabe. "Munduko Kopatik aparte zan 23 urte artekoak eta elite lasterketea kendu egin dogu 3.000 euro aurreztu eta zorretan ez geldituteko". Ha ta guzti be, gastu guztiak kubriduteko lain ez danez, aurten, azkenengo 15 urteetan ez bezela, zozketa bat egingo dabe AZEkoak. Holan, Gabonetako loteriaz batera, txarri lodia, kaminoko



Txirrindulariak lupeztuta Igorreko zirkuituan.

bizikletea eta ekipazino bat zozketa-tatuko ditue.

Lasterketa bat kendu, zozketa bat egin, laguntzaile barriak topau... antolaketa lanak zaildu egin dira diru eskasiagaitik eta AZEkoak datorren urtean Munduko Kopa egin ala ez baloretan dabiz.

Igorrekoa Munduko Kopako laugarren proba

Aurtengo Munduko Kopako lehenengo lasterketea Plzen-en (Txekia) izan zan urri bigarrenaren 16an; bigarrena Tabor-en (Txekia) urri bigarrenaren 23an; hirugarrena, Koksijde-n (Belgika) zemendiaren 26an; laugarrena Igorren izango da eta ondoren, Namur-en (Belgika) hilaren 18an, Hesuden-Zolder-en (Belgika) hilaren 26an, hurrengoa Lievin-en (Frantzia) 2012ko urtailaren 15ean eta azkena Hoogerhei-

de-n (Nederland) urtailaren 22an.

Hau idazten dogun momentuan, Munduko Kopako liderra Kevin Pauwels (Belgika) da, bigarren Sven Nys (Belgika) eta hirugarrena, Zdenek Stybar (Txekia) da. Lehenengo euskalduna Egoitz Murgoitio 26. postuan dago, baina "oso indartsu dago, Koksijde-n 16. egin eban eta lehenengo hamarren artean sartzeako helburua dauka" dino Zurinagak.

Opel Ibaiganetik urtendako Erlantz Uriarte eta David Juarez be elite mailako Munduko Kopa dabiz korriduten. Igazko txapeldunak, Niels Albert-ek istripu bat izan dau eta aurten ez da Igorren egongo.

Kadete mailan Opel Ibaiganeko taldekoak ikusi ahal izango doguz Igorren eta nesken artean Irati Intxaurraga eta Zoila Cabrera egongo dira.


AUTOAK

Hirugarren auto klasikoan batzarra

Erredakzioa

Hilaren 3an izango da Areatzan Arratian egiten dan auto klasikoan hirugarren batzarra Real Peña Motorista Vizcaya-k antolatuta. Batzar honetan batez be dira auto klasikoak, edo, antolatzaileak dinoen moduan, "edadekoak" izango dira. Partehartzaileak Diman alkartuko dira goizeko 10:00etan, Arratia ingurutik buelta bat emoteko, eta ostean, 13:00etan, Areatzan geldituko dira arrastiko 17:00ak arte.

"Ez da rally bat, batzar bat baino" azaldu deutso BEGITURI Txomin Goti antolakuntzakoak. Araba eta beste herrialde batzuetako partaidetza espero dabe antolatzaileak, baina baita bertakoena. Izan be, Arratian egon badagoz ezaugarri honeetako autoak. "Igaz 30 auto egon ziran. Horeetatik 10 inguru Arratiakoak" dino Gotik.



Autoak Indusira heltzean.

Ezagutu gurekin gaur, bihar eta atzoko euskal sukaldaritza

UBIDE ELKARTOKIA

- Eguneko menua
- Asteburuko menua
- Koadrilentzako bazkariak
- Pintxojana
- Eta giro jatorra

Jon Dauna enparantza 1, Ubide
Tlf. 945458339

www.ubideellkartokia.com

mediku naturista
argaltzeko terapia
kosmetika naturala
elkagai biologikoak
zeliakontzat elkagaiak
estelizena

Zamakoia, 9 - 48960 Galdakao
94 600 21 12 - 94 600 87 56
L. Agirre, 9 - 48140 Igorre
94 631 14 39

BATZ, S. KOOP.
Tomea auzoa, 32
48140 IGORRE (BIZKAIA)

- Trokelgintza
- Automobiletarako Sistemak

Beharrea beharrez,
euskeraz eginez

Enbata
Batzen gaitu

DOKUMENTAL ZIKLOA

Historia ez ahazteko
dokumental zikloa

Izarren argia filma.

Erredakzioa

"Oroimena astintzeko filmak" titulupean, Areatzako Udaleko Kultura Arloak dokumental zikloa antolatu dau. Lau filmek osotuten dabe zikloa, Josu Martinezek zuzendutako *Itsasoaren alaba*, Mikel Ruedaren *Izarren argia*, Josu Martinez eta Txaber Larreategiren *Sagarren denbora* eta Sabin Egiliorrek zuzendutako *El largo viaje*. Filmok hilaren 14tik 17ra ikusi ahal izango dira Areatzako ludotekan.

Itsasoaren alaba filmak zabalduko dau zikloa. Honetan GALek hildako Mikel Goikoetxea "Txapela"ren alabearen historia kontetan jaku. Haizeak urte bi eukazanean hil eben aita, 25 urte beranduago, testitangantzen bidez orduko egoera zelakoa zan jakingo dau.

Eguenean, hilak 16, ikusi ahal izango dan *Sagarren denbora* Kristiane Etxaluz xiberotarra eta Alfonso Etxegarai bizkaitarraren historia kon-

tetan da. Biak gazterik lotuta Euskal Herriaren askapen burrukara, beren maitasuna sorterritik 7.000 km. ra bizitera kondemata dagoz.

1936ko gerra inguruko film bi
Beste biak 1936ko gerra daukie gaitzat, *Izarren argia* eta *El largo viaje*. *Izarren argia*, hilaren 15ean proiektatuko da. Film hau ez da dokumentala, baina gerra eta gerraosteko gertakirik gogorrenetarikotan oinarrituta dago. Filmak Saturraranen kartzelatutako andra baten istorioa kontetan deusku, Victoriarena. Victoriaren oroitzapenen eta burrukaren bidez azaltzen da zelan bizi izan ziran kartzela haretan eta zelakoa zan hango eguneroko jarduna.

El largo viaje 1936ko gerrako gertakizun ilun baten eta hau argitzeko egin zan ikerketearen barri emoten dau. Bilbotik Sevillara konzentrazino-esparrura presoak eroiezan merkantzia trenak istripu edo sabotajea izan eban.

KATALOGOA

Euskerazko
Produktuen
Katalogoa
bananduko da

Erredakzioa

Hurrengo egunotan bananduko dira 200.000 ale inguru Euskal Herri osoan. Igorren, eskolan bananduko dabez eta herritarrentzako eskuragarri egongo dira, Kultur Etxean, udaletxean, kiroldegian eta osasun zentroan. Lemoan eskolan eta taberna eta denda batzuetan hartu ahal izango da eta Bedian be bananduko dira katalogoak.

Gurasoentzako eta 16 urte bitarteko haur eta gazteentzako ehunka erreferentzia biltzean ditu edizino barri honek.

Merkaduan dagozan produktuen artean aukeraketea egin da, barritasuna, egokitasuna eta kalidadea kontuan hartuta; eta zortzi ataletan bananduta jaso dira: musikea, liburuak, aldizkariak, filmak, jostailu eta jokoak, DVD eta informatika produktuak, komikiak eta gurasoentzako produktuak. Gainera, produktu bakoaren gixi gorabeherako prezioa emoten da, eta atal batzuetan adinaren arabera banaketea egiten da.

Horrezaz gain, www.katalogoa.org webgunean, paperean jasotako produktuez gain, merkaduan topau leitekezan beste asko agertzen dira. Aukera dago, gainera, argitaletxearen denda birtualera ailegetako produktuaren gainean klik eginaz eta, gura izan ezker, begiz jotako produktuaren erosketea etxetik egiteko. Euskerazko Produktuen Katalogoaren webgunea urte osoan konsultau leiteke, eta irakurleak, iruzkinak eta komentarioak egin ahal izango dabez bertan, irakurri, ikusi, entzun edo eta olgetako aukeratu daben produktuaren inguruan.

Ikastolen elkarteko katalogoa konsultau gura izan ezker, jo www.ikastola.net webgunera.

IRAKURLE KLUBA

Josi Basterretxea, Bediako
irakurle klubeko saioan

Erredakzioa

Abenduaren 14an, eguaztena, Josi Basterretxea idazlea egongo da Bediako liburutegian bere azkeneko liburuaren ganean berba egiteko. Idazle galdakoztarrak bere laugarren fikzino lana aurkeztuko dau bertan, *Tranbiaren azken itzala* (Elkar, 2011).

Bere aurreko liburua lez (*Mandariaren gerra*, 2008ko Agustin Zubikarai saria), Gerra Zibileko urteetan girotutako lana da azkeneko hau. Plano desbardinak garatzen dira bertan; ikerketa historiko eta dokumental sakona egin dau idazleak hurreko istorio bat kontetako.

Jose Inazio Basterretxea Polo fikzino lanen idazlea izatetik aparte, hedabide eta komunikazio alorrean hainbat lan egindakoa da. Gaiari buruzko hainbat saiakera idatzi dauz; gainera, EHUko irakasle be bada, In-

formazio Zientzien Fakultadean, baita EITBren Administrazio Kontseiluko kidea be oingo legegintzaldian.

Bediako Udalak antolatutako irakurle klubak euskal literaturako egileak bertatik bertara ezagutzeko aukerea eskeintzen dau. Ateak zabalik dituan ekimen honetara hurreratzan diranak aukerea daukie gura dabezan itaunak egiteko liburuaren egileai. Hile biro izaten da, eta saioak 19:00etan hasten dira.



Liburuaren azala.

DURANGOKO AZOKEA

Arratiako egileen aurtengo
lanak egongo dira Durangon

Erredakzioa

Durangoko 46. Liburu eta Disko Azokan egongo da Arratiako egileen lanak erosteko aukerea. Aurreko urteetako lanaz gainera, aurtengo bost nobedade egongo dira azokan: Iker Yurrebasoren *Haizea aurpegian* liburuak, Gontzal Mendibilen *Neure txiki polita* diskoa, Angel Larrea eta Juantxu Rekalderen *Arratia Inguruko Hiztegia*, Borja Estankonaren *Estankona* diskoa eta Asier Garcariaren *Bikaña* diskoa.

Honeetatik hiru Elkar-en erakusmahaietan topauko doguz, Gontzal Mendibil eta Asier Garcariaren diskoak eta *Arratia Inguruko Hiztegia*.

Iker Yurrebasoren liburuak barriz, Gaztesarearen erakusmahaietan eta Borja Estankonaren diskoa Bagabiga argitaletxearen erakusmahaietan egongo dira salgai.

Azokak hiru gunen barri

Kultur adierazpen barriak lekua egiteko Durangoko Azokak hiru gunen barri izango ditu aurtengo: Irudienea, Senatokia eta Kabi@.

Azokea zabalik egongo da abenduaren 4tik 8ra, 10:30etik 20:00etara. Aurtengo konbidatua galegoa izango da eta Argizaiola Iñaki Beobideri emongo deusie. Aurtengo igaz baino nobedade gitxiago dagoz: igaz 505 izan ziran eta aurtengo 434.

Arratia, Ubide eta Zeberioko euskera eta kulturearen alde

**Hamabostero Begitu zure
etxean eta Arratia
inguruko Hiztegia doban**

Egin zaitez zeu be Begitu-lagun

Etxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkarteak ataratako produktuak.
Hamabostean behin, sariketa-zozketan parte hartuko dozu.

Izen Abizenak

Helbidea

Telefonoa

E-posta

Kontu korronteko 20 digitoak

Urterko kuota aukeratu:

■ 35€

■ 55€

■ 75€

Moztu eta bidali helbide honetara:
Zertu Kultur Elkartea, Herriko plaza 24, 48942 Artea

LEHIAKETEA

Zeanuriko Ipuin Lehiaketaren I. Edizioa



ZEANURIKO IPUIN LEHIAKETAREN I. EDIZIOA

Irudimenak sortutako alegiazko abenturak

- Oskarriak:**
- Zeanuriko Ipuin Lehiaketaren I. Edizioaren irudimenak sortutako alegiazko abenturak.
 - Lana bera berridazteko irudimenak sortutako alegiazko abenturak.
 - Luzeraz gertakariak 2 orrialde eta gehienez 6. kategoria:
 - Kategoria:
 - 4-7 urte bitartekoak.
 - 8-11 urte bitartekoak.
 - 11 urteko gorakoak (lana ordenagarria eta mekanografiatuta egon behar du).
 - Gaia librea, birkalibretu edo baturak.
 - Gutunaz irudi baten aurkako behar da ipuina eta beste baten egitea dabil.
 - Aurkariak epailek abenduaren 15era arte.
 - Sari banaketa: abenduaren 27an, Kultur Etxean.
 - Sariak: irabazleentzat, diploma eta oparia. Partehartzaile guztientzat, irabazleentzat.

Kartela.

Erredakzioa

"Irudimenak sortutako alegiazko kontakizunak" batzeako asmoz, Zeanuriko Udalak ipuin lehiaketea antolatu dau. Ipuinak abenduaren 15a arte aurkeztu ahal izango dira udaletxean eta partehartzaileak Zeanurin bizi behar dira. Sari banaketa abenduaren 27an izango da Zeanuriko Kultur Etxean.

Ipuinen gaia librea da. Ipuinak euskeraz idatzita egon behar dira, bizkaieraz zein batueraz eta hiru kategoria egongo dira egileen edadearen arabera. Holan, 6 eta 7 urte bitartekoak; 8 eta 11 urte bitartekoak; eta 11 urteko gorakoak izango dira kategoria horreek. Irabazleak diploma eta oparia jasoko dabe.

BELDUR BARIK


Aitamen berezia lemoaztar biren lanak

Erredakzioa

Begoña Barroeta eta Rut Rodriguezen "Oihu" poemak aitamen berezia jaso dau Beldur Barik lehiaketan. Lehiaketa hau Berdinsareak (andrakanako indarkeriaren kontrako eta bardintasunaren aldeko Euskadiko Udal Sareak) antolatuten dau eta guztira 250 proiektu aurkeztu dira 2. edizio honetan. Tartean, Arratiako hiru. Hirurak 1. kategorian, 12 eta 17 urte bitartekoan.

Barroeta eta Rodriguezen "Oihu" poema eta argazkiak ganera, Ane Goienetxe Azkuenaga Lemoakoak "Behar duzun horrek entzungo zaitu" izenburuko argazkiagaz hartu eban parte eta Mankomunitateko Elkar Ezagutu programako gazteak "Beldur gabe bizi" bideoagaz. Elkar Ezagutu programak, kanpotik etorritako eta bertako gazteak kontaktuan ipini eta hareen arteko hartu-emonak bultzatzen dauz.

Andrakanako indarkeriaren kontrako burrukan gazteak inpliketea bilatzen dauan lehiaketa honen irabazleak Deba eta Bilboko ikus-entzunezko proposamen bi izan dira.



Ane Goienetxeren irudia.

FILMA

Egunon printzesa! filmaren estrenaildia izan zan Igorren

Zemendiaren 22an, Emakumearen Kontrako Indarkeria

Deuseztatzeko Egunaren inguruko programea aurkeztu

eben Arratiako andra taldeak, talde feministak eta

udaletxeetako bardintasun arloak Igorren Kultur Etxean.

Erredakzioa

Zeanuriko Masala andra taldearen izenean Karmele Beobidek, Izaskun Betzuenek Lemoako Udalaren izenean, Maribel Beas-koetxeak Dimako Andraize taldearenean, Areatzako Emakume Foroaren ordezkari Kari Basozabalek, Ainare Sanchez Arteako Bardintasun zinegotziak eta Soraya Lizundiak Igorrenko Udalaren izenean leku bakotxean egongo zan ekitaldien barri emon eta Igorrenko alkarretaratzeko deialdia egin eben.

Ekitaldian Irati Bernaolak bota zituan bertsoak eta Arrati Institutuko ikasleak egindako *Egunon printzesa!* laburmetrajea estranau zan.



Irati Bernaola bertsoetan.

Ikastetxeetan indarkeria matxistea prebeniduteko

Urbintxa Eskolak eta Emasia alkar-teak indarkeria matxisteari aurre egiteko ikastetxeetan erabilteko, euskerazko materialik ez egoala eta, laburmetrajea egiteko ekimena izan eben. Holan sortu zan, *Egunon printzesa!* filma. Zeberioiko Ibai Pujana da film honen zuzendaria eta Arratia Institutuko ikasleak, protagonistak. Aktoreen artean, Hektor Rodriguez Institutuko irakaslea eta Zertuko zuzendaritzako kidea be agertzen da eta lokalizazioetako bat Arratia Institutua bera da.

Egunon printzesa! filmak gazteen bizimodua islatzen dau, indarkeriaren prebenzioa lantzeako. Emakundek diru laguntzea emon eban film hau egiteko.

AME

Gabonak heldu dira Igorrenko AME alkarteko dendetara



Kartela.

Erredakzioa

Hilaren 10ean, Gabonetako argiak biztuko ditu Igorren Arratiako Merkatarien Elkarteak (AME). Ekitaldia arrastiko sei-retain izango da Kultur Etxe ondoan eta erosketa burditxoan banaketeagaz hasiko da, 60 erosketa burdi bananduko dira. Gero, 19:00etan argiak biztuko dabez eta 19:30ean txokolatea egongo da hurreratzetan diranentzat. Ekitaldi honeguz, merkataria-riak igorretarrak Gabonetako erosketak herrian bertan egitera animau gura dabez.

Gogoratu "Igorren Erosi" kanpainarean barruan, urri bigarrenaren 18tik aurrera AMEk erosketa-burdiak ipini zituala alkarrean dagozan dendetan. Kortesiako burditxoak dira honeek karrook eta erabili ostean, erosketa-burdiak dendan itzuli behar dira.

DUNBA

Arteako MerkArtea 2011



MerkArteko postu bat.

Arteako eskolako 5. eta 6. mailako ikasleak

Kaixo BEGITUKO irakurle guztiok, guk Arteako MerkArteari buruz egingo dogu berba. Gertakizun hau urri lehenengoaren 17an izan zan, goizeko hamarretatik gaueko ordu batetara.

Goizean merkadu txiki bat egon zan, bertan "tren txu-txuak" bi-jaeak egiten zituan Arteatik Areatzara eta sano astiro joaten zan. Udaletxe aurrean, Astuibekoa auzoaren aurrean, postuak

egoazan eta bertan gauza asko eskeintzen zituen, adibidez: barazkiak, pastelak, erroskillak, eskulanak, txorizoa taloagaz...

Plazan goizean eskulanak egon ziran, bazkaldu baino arinago honeek amaitu ziran. Gura ebanak frontoian bazkaldu ahal izan eban, baina ordaindu egin behar zan. Arrastian, 18:30etik 20:30era kontzertu bat egon zan eta jarraian Castellarsak Jabiren taberna ondoan egon ziran. Ekitaldia eta gero, bederatzia-ki inguruan, suzko oiloa egon zan, udaletxetik hasi eta Batzokian amaitu zan. Honen ostean kontzertu bat egon zan.

MerkArtean persona asko



egon ziran eta sano ondo pasau genduan. Urtez urte egiten da, espero dogu zuok animetea. Hurrengo urtean etorten bazarie oso ondo pasauko dozue eta. Agur bero bat!

AGENDEA

ABENDUAK 2

ARRATIA

Euskerearen eguna. Ekintzak Areatza, Diman eta Lemoan. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

BEDIA

19:00etan, Erregeen kabalagan parte hartzeako batzarra eskoletan.

DIMA

19:30ean, "Diman etxean gura doguz" presoan aldeko konzentrazioa.

ABENDUAK 3

AREATZA

Auto klasikoan III. Batzarra, RPMV-k antolatuta.

ARRATIA

Euskerearen eguna. Ekintzak Areatza, Dima, Igorre, Zeanuri eta Zeberio. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

ABENDUAK 4

IGORRE

09:30ean, Ziklo-krosa. Munduko Kopa eta XXXV. Euskadi Sari Nagusia (kusi 11. orrialdea).

17:00etan, umeentzako zinea *Monte Carlo*.

19:30ean, zinea Lasarte Aretan *One Day*.

ZEBERIO

10:00etan, Artisau eta Bertako Produktuen XII. Azokea.

ABENDUAK 9

LEMOA

16:30etik 19:30era, Haurrentzako Gabonetako VI. Marrazki Lehiaketan lanak entretetako epea amaituten da. Ludotekan.

ABENDUAK 10

AREATZA

23:00etan, Jabier Mañon umosristea Bixer Tabernan.

IGORRE

18:00etan, AMIEk erosketa burdixoen banaketea. Kultur Etxe ondoan. 19:00etan, Gabonetako argiak biztu. 19:30ean, txokolateta.

20:00etan, zinea Lasarte Aretan *Bertsolari*.

Filmaren ostean berbaldia, konbidauak: Asier Altuna filmaren zuzendaria eta bertsolari protagonista bat.



Benito Lertxundi hilaren 9an Igorreko kiroldegan

Benito Lertxundiren kontzertua Igorreko frontoian izango da 20:00etan. Sarrerak aldeztu erosteko BBKte-leka aurrez salmenta sistema erabil leiteke, bai kutxazainen bidez, bai telefonoz, bai internet bidez (edozein txartel erabilita). Sobran gelditzen diranak Kultur Etxeko takilan ipiniko dira salgai kontzertuaren egunean bertan, arrastiko 18:00etatik aurrera amaitu arte. Gainera, takila ez dagoenez kontzertua egingo dan leku berean, Kultur Etxean baino, telefonoz eta internet bidez sarrerea erosten dabena, kutxazainen baten inprimetako gomendatzen jakie, ostean Kultur Etxeko takilara joan beharko dabe sarrerak inprimetan.

Benito Lertxundi euskal kantugintzaren aitzindariarik nagusienetako bat eta Euskal Herriko nortasun ikurrik ezagun eta maitatuenetako bat da. Baina ez hori bakarrik: Lertxundi, batez be, zintotasun, sentikortasun eta biluztasuna gainezka daukiezan kantuen artisau magikoa be bada. Bere metodoa, azken finean, sormenaren askatasunean oinarrituten da, zorrotasunean eta eguneroko esfortzuan. Gainera, intuizino natural itzela dauka, baita gustu melodiko bikaina be. Horren danaren ondorioz zentzu estetiko aberatsa, sujerentea eta sano komunikatiboa dauka. Benito Lertxundi, kantuaren barruan bere burua topau guran dabil, eta modu horretan erakartzen gaitu, barru-barrutik, geu bere sentimentuen partaide zuzen bihurtuz.

ZEANURI

Joko Alai alkartearen eguna. 09:00etan, Ibilaldia plazan. 15:00etan, bazkaria Altzuagako txokoan.

ABENDUAK 11

IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea *Katu bat Parisen*.

19:30ean, zinea *Bertsolari* Lasarte Aretan.

ABENDUAK 12

BEDIA

18:30ean, Gabon bartelen lehiaketako sari banaketea.

LEMOA

16:30ean, hilaren 16ra arte, tailerak ludotekan.

Gaia: Gabonak.

ZEBERIO

17:30ean, Arratiako Musika Eskolako Zeberioko ikasleen entzunaldia, eskola zaharrean.

ABENDUAK 13

BEDIA

17:00etatik 20:00etara, hilaren 23ra arte, lehiaketan parte hartu daben bartelen erakusketeta liburutegian.

ABENDUAK 14

AREATZA

19:00etan, *Itsasoaren alaba* filma ludotekan.

BEDIA

19:00etan, Irakurle Klubean Josi Basterrebrea *Azken tranbiaren itzala* liburuz berbetan.

ABENDUAK 15

AREATZA

19:00etan, *Izarren argia* filma ludotekan.

IGORRE

18:00etan, Parte hartzea antolatzeko foroa Kultur Etxean.

LEMOA

11:00etan, ariketa fisikoa egiteko Lemoak dituan baliabideak azaltzeko berbaldia Jubiladuen Etxean.

18:30ean, Gabonetako VI. Marrazki Lehiaketaren sari banaketea ludotekan. "Alabazan" ipuin kontaketeta.

ZEANURI

Ipuin lehiaketarako ipuinak aurkezteko epea zaratuten da.

Kirola egiten dabenezako mediku azterketak, hilaren 21era arte. Ordua udalarekin eskatu.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

SALTZEAN DOT

Vespa Iris 200 motorra. BI-9307-BL 650€ren truke. Kapritxu bat. Deitu 645 006 293 telefonora.

SALTZEAN DOT

Mendiko bizikletea (BTT) saltzean da. 10-13 urterako. Gitxi ibilita. Prezioa: 60€. Interesdunak deitu 634 410 259 (Luis) telefonora.

ETXEA SALGAI

Areatzako Askatasuna kalean 125 m²ko pisu ederra salgai. Telefonoa: 646 448 869.

AUTORAKO AULKIA SALGAI

Autorako segurtasun aukia salgai. Römer Duo Plus-Isfix. Group 1 (9/18 Kg). Grisa eta baltza. Oso egoera onean. 626 385 581.

DANERIK

APARTAMENTUA ALOKAIKUAN

Suancesen apartamentua alokairuan. Asteburu, astebarru zein edozelan alokatzeko. 4 pertsonentzako.

Apartamentu barria. Telefonoa 677 497 985.

AURREKUA IKASI GURA DOT

Aurrekuaren Kontrapasa ikasteko eskolak hartzea gura dodaz. Zapatu arrasti edo domekan izan beharko litzateke. Nonor eskolak emoteko prest badago, honako telefono-zenbaki honetara deitzea dauka: 659 059 194.

GARAIEA ALOKAIKUAN

Igorreko Bidebarri kalean 6-7 zenbakietan garajea alokairuan. Interesdunak deitu: 615 731 182 telefonora.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin edo behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@topagunea.com-era. Mezuak doan dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1

Igorreko Udalak emondako bina sarrera Benito Lertxundiren kontzerturako.

Maitane Olatz Bilbao (Areatza)
Sebas Angoitia (Artea)



2

Igorreko Udalak emondako Gontzal Mendibilen CD bana.

Garbiñe Uriarte (Dima)
Ainhoa Rodriguez (Dima)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan

sartuko zara.


Ehun zenbaki

eta ehundaka

lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Okergunez beteari buruz esaten da. 2.- Narrea. Suitzako ibaia. 3.- Lehenago mezatan erabilten zan hizkuntzea. 4.- Azken letrea. Ogirako otzarea. Mila erromatar. 5.- Nortasuna. 6.- Nitrogenoa. Birritan, erreskadan. Uranioa. 7.- Hizkia. 8.- Errepikatuz, oinetako-hotsen onomatopeia. Sasoi. 9.- Atzerritik datorrena.

GOITIK BEHERA

1.- Txarra ez dana. Jainkoaren izenean emoten dan berbea. Letra izena. 2.- Birritan, bor-bor. Letra bat. Bibliako pertsonajea, Abrahamen iloba. 3.- Orokor. 4.- Letra bat. Hesola. Letra bat. 5.- Pluralez, lantegia. 6.- Santu baten izenaren aurretik. Letra bat. Zeregin. 7.- Edabe garbi. Umeen berbetan, usigi. (Atz.) Andrai dei egiteko hotsa.



Topau Biblical agertzen diran zazpi uriren izenak.

A	S	T	O	R	E	K	A	M	I
R	I	A	B	O	D	I	L	L	O
E	S	A	M	E	S	T	A	N	D
A	T	A	B	A	K	E	K	E	R
T	O	R	A	T	R	J	O	L	I
Z	A	I	H	I	U	I	Z	A	U
A	R	M	E	D	N	P	A	S	O
A	U	A	G	E	R	A	T	U	S
R	U	T	L	O	I	D	T	R	O
T	X	E	T	X	E	K	O	E	R
E	B	A	O	C	I	R	E	J	B
Z	A	T	S	E	T	I	B	E	O
T	U	N	A	Z	A	R	E	T	X
U	L	E	M	O	T	O	R	I	A
K	A	R	A	N	B	O	T	U	S

AKI MI KO

Igor Menika



Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tlfnoa 649 86 95 36

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Umeen moda 0-20 urte
• Bobbi • Ray • Aranda
• Akir • Gutsuiter • Arandiga
• Gaudole • Leiz • Massana
sein
LEHENDAKARI AGIRRE, 27 • 946 319 296
seinmoda@hotmail.com

GARANTXE
Autoeskola
TEORIA BUKARAZ ZEIN ERDARAZ
Balmusak 41, A, BTE, B
Lehendakari Agirre 31
Tlfnoa: 94 673 71 32
98140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@euskaltel.net

ARRATIA AUTOESKOLA
karmela eskola zein erdaraz
Gorbe, 10 - 48140 Igore (Bizkaia)
telefonoa 94 631 54 31, Faxa 94 673 70 83
e-posta: urakua@euskaltel.net

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Polig.Mendieta,nº 3,48530 LEMCIA, Euzkadi
Tel.020-452.839-000 099.296.727

ALKOHOLIKO ANONIMOAK
ARRATIAKO TALDEA
Arazoak alkoholagaz?
Arazoak badaukazuz,
lagundu ahal zaitugu

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

ELEKTROARGI ELEKTRIZITATERA
Instalazio elektrikoak • Aberiak
Telekomunikazioak
Material elektrikoak
Juan de Ajujagerra 1 Behea 48330 Lemoa
Tlfnoa-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

Ennea
GARRAIOAK
Ilugikorra 629 465 335
brantze eznea, 12 LERROK
Tlfnoa: 94 631 58 82 Faxa: 94 631 51 81

KIRRU ILEAPANDEGIA
SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 bajo - 48140 IGORRE (Bizkaia)
• 94 631 92 00

Igorre
BIZTAR EGUNAK:
epautesak 20etatik 22etara
Udaltzarke arkapetan
EPA-ko lokalak
KONTAKTATZENO
TELEFONOA:
690 139 044

INCOESA
Tel. 94 631 32 75
Faxa. 94 631 37 66
Bidekoetxe 18 48.390 Bedia

Bar Restaurante
Montero
Eguneko menua
euskal sukaldaritza,
sukaldaritza bolibiarra
eta brasildarra
Zelaia 19 - Arantzazu - 619 903 653

JAIR DEL OLMO

"Esperientziagaz beragaz geldituten naz, muturrekoa izan da dana"

Igorre: 120 metro, Aconcagua 7000 metro inguru. Itzela bata bestearen arteko aldea baina "mal de alturarik" ez deutso emon Jair del Olmori. Igorretzarak *El Conquistador del Aconcagua* saioan parte hartu dau. Tontorrera heldu ez bada be, motxila bete esperientzia ekarri dau Arratjarantz. BEGITU beragaz egon da, bizi dauan esperientziaren gainean berba egiteko.

Irati Urien

Zelan animau zinan programa honetara joaten?

Hasieran *El Conquistador del Fin del Mundo* apuntau nintzan eta finalista gelditu nintzan. Gero, deitu egin eusten ia *El Conquistador del Aconcagua* joateko prest nengoan galduteko. Hasieran pentsau neban ezetz. Inoz ez naz mendian ibilia izan, Gorbeara baino ez eta bertan dagoalako. Igorreko lagun biri kontau neutsen eta joateko esan eusten. Hareetako batek (Unai Ziarrusta) esan eustan bera joango litxakeala eta biok casting-era joateko proposatu eta joan egin ginan.

Zelakoak dira casting-ak?

Hasieran orri bat emoten deusue, itaun askogaz "ze musika talde gusetan jatzu?" "kiralik egiten dozu?", "zein da zure hanketako neuria?"... eta holakoak. Kukuman nengoala lagunakaz, arrasti baten telefonoa josten hasi zan eta pantailan "Conquis" irakuri neban. Aukeratua izan nazala eta zoriondu egin eusten, gero datak

eta abar zehaztuz. Lagun bateri deitu neutsan eta bere erantzuna zera izan zan: "ebatzia hartuta dago, bazoaz eta bazoaz". Azkenean programara deitu eta baietz esan neban.

Aukeratua zarala esaten deusuenetik programan sartu orduko tartean preparau zinan fisikoki edo psikologikoki?

Hiru aste inguru euki nebazan baina egia esan ez, ez nintzan preparau. Kirola betidanik egiten dot eta pentsau neban nengoan moduan joatea, nahiz eta mendian asko ibilia ez izan.

Zelan hasi zan abenturea?

Hiru taldetan banandu ginan. Batzuk barikuan joan ziran, beste batzuk zapatuan eta azkenak domekan. Ni hirugarren talde horretan joan nintzan. 36 orduko biatzea izan zan. Astelehen gaubean heldu ginan, arineketa afaldu eta lau ordu beranduago lehiaketea hasi zan. Kideak Txile, Silvia, Koro, Gaizka eta Inaxio izan ziran. Ikusi nebazanean, batetik euren mendi esperientziak kontetan hasi ziralako eta bestetik ni baino zaharragoak ziralako

bildurtu egin nintzan. Lehiaketea, zezeilaren 6ean hasi genduan.

Jokoa hasteagaz batera, kamarak be martxan. Zelan eroaten da kontu hori?

Txarto. Nik berba asko egiten dot baina han sano gitxi egin dot. Pilo bat kostau jatan hasieran. Persona bategaz berbaz ibiltea eta kamara bat grabetan datorrela ikustea arraroa zan, deserosoa.

Casting-ean esan zenduan altuera gaitzak arduratuten eutsula. Zelan konpondu zara?

Ondo eroan neban. Hori bai, oxigeno faltea igarten neban hasieratik. Baina altuera gaitzaren inguruan ez neban ez buruko minik, ez gogo eskasik, ez tripetako minik ez ezer euki.

Zer egin jatzu gogorren?

Duda barik, motxilearen pisua, 15 kilo errez eukiko ebazan. Pilo bat ibiltzen ginan, ez genduan patxadaz deskantsetan eta azkenean sufridu egiten da. Uraren kontua be oso txarto eroan neban. Ez genduan urik eukiten. Lakuetatik hartzean genduan baina kanpamentu batetik bestera aldatzen ginanean ez genduan jakiten zenbat denporaz ibiliko ginan eta ezin genduan kontrolau zenbat edan. Askotan kanpamentutik lakura ordu bi egoten ziran eta ura ez zan edatekoa.

Eta hotza edo gosea?

Hotz handia pasau genduan baina ez da txarrena izan. Eta gosea, hasieran pasau genduan baina gero estresagaz eta programearen kontuagaz ez zara akordetan gose zaranik.

Zelangoa zan partaideakaz euki zenduan hartu-emona?

Oso ona danakaz baina batez be Txileno, Bego eta Anderregaz. Betirako lagun egin dodaz.

Kideetatik aparte, beste hiru protagonista: Juanito Oiarzabal, Mikel Goñi eta Julian Iantzi. Zelan eurekaz?

Juanito agertuten dan modukoa da. Berba egiteko desatsegina dala irudit



jatan. Momentu batzuetan ondo portetan zan baina gero dana kakaztuten eban. Matxista eta injustoa be badala esango neuke. Mikelegaz oso ondo, pasada bat. Persona oso ona da. Gutariko bat lez portau zan. Telebistan ke jau baino ez dala egiten emoten dau baina ez da holan. Julian Iantzigaz be sano ondo. Fama txarra dauka baina betetzen dauan papela baino ez da. Baina lagundu ahal badeutsu, lagun-duko deutsu.

Pasau jatzun inoz burutik programea iztea?

Bai. Batzuetan itota egoten nintzako. Psikologikoki edo fisikoki bazan be, dana muturrekoa zan azkenean. Akordetan naz gorantzako ibilbide baten ezin nebala segidu eta ia han ze egiten neban pentsau nebala.

Han zagozala botaten dira faltan hemengoak?

Ez. Beste mundu baten sartzean zara. Gogoratuten dot, hango kideai galdetu neutsela ia eureri be bardina pasetan jakien eta baietz erantzun eusten. *El Conquistador del Fin del Mundo* ikusten nebazanean, buruari bueltak emoteko eta pentsetako denpora asko eukiten zala uste neban baina ez da holan. Hainbesteko presinoa egoan ez egoala astirik ezertan pentsetako.

Probetan asko sufriduten da?

Gogorraz ziran. Telebistan aste batetik bestera ikusten dira baina han egun

batetik bestera ziran. Gainera kontua ez zan probak bakarrik egoazala, lekura joateko ibilaldi luzeak egin behar izaten ziran. Jan barik, deskantsau barik, lagunak be ez dakizu lagunak diran ala ez... Horrek guztiorrek psikologikoki asko kantsetan dau gainera.

Ze helburugaz joan zinan?

Zuzendariak egunerokotasunagaz disfrutetan saiatuteko esan eustan, neukan oportunitadea aprobetxetako. Ezin da puntara helduteko helburuagaz bakarrik joan, bide erdikoaz ez dozulako disfrutetan holan. Nik eguna disfrutetan neban.

Behin handik hona bueltauta, jentea pista eske?

Bai. Danak preguntetan deuste ia noraino heldu nintzan, norik irabazi eban... baina ni isilik. Badakie ez dotala ezer esango. Egia esan, nahiz eta kontratuan ez dogula ezer esango sinatu, gero batek daki betetzen dan ala ez. Nik gehien bat ez badot ezer kontau kontuari emozino apur bat emoteko izan da.

Zeregaz geldituten zara?

Esperientziagaz beragaz, muturrekoa izan da dana. Pilo bat ikasi dot.

Barrero be animauko zinakez?

Hasieran ezetz esaten neban baina bai, joango nintzake. Edonor animauko neuke apuntau eta joateko, holako esperientzia bat derigor bizi behar da.



ALKIZABAL

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

BOLUNBURU POLIGONOA
Amorebieta-Lemoa bidea
Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26
48330 Lemoa (Bizkaia)

www.alkizabal.net
alkizabal@alkizabal.net

Zabalik 07:00 - 19:00











· Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.

· Garraio zerbitzua.